

4

“MACHIRULO/KOSMOPALETOK, PUTA/CASHERO” Euskararen aurkako diskurtsoei aurre egiteko hainbat zertzelada Mugimendu Feministaren teoria eta praktiken iturrietatik

Mikel Ozaita Azpiroz

Euskaltzaleen Topaguneko Kohesio eta Sentsibilizazio arduraduna

hiaxeri@hotmail.com

Sarrera-data: 2015-11-03 / Onartze-data: 2015-11-30

Laburpena. : Euskararen kontrako diskurtso ageriko eta erdi ezkutuei aurre egiteko gabezia nabarmena da Euskalgintzan. Era berean, maila diskurtsibo zein praktikoan, salto kualitatibo baten eta berritzearen beharra gero eta nabariagoa da, hainbat adituren aburuz. Artikulu honek, euskararen normalizazioaren aldeko “diskurtso multzo koherentea” aldarrikatzeaz gain, euskararen kontrako diskurtsoei nola aurre egin iradokitzen du, Mugimendu Feministak erabilitako teoria eta praktiken baitan. Horrela, lan honek, hizkuntza-aktibismo berri baterako proposamen kontzeptual eta praktikoak mahai gaineratzen ditu, euskararen normalizazioaren alde bidezidor berri bat proposatuz. • **Hitz gakoak:** Hizkuntza-aktibismoa, hizkuntza diskurtsoak, subalternitate, ahalduntzea, Mugimendu Feminista, Euskalgintza.

Abstract. There is a clear gap in Basque-language activity to tackle the obvious and partly concealed anti-Basque discourses. At the same time, on a discourse and practical level, the need for a qualitative leap and innovation is becoming increasingly clear according to many experts. This paper not only calls for “a coherent discourse set” in support of the normalisation of Basque, it also suggests how to tackle anti-Basque discourses, within the theories and practices used by the Feminist Movement. So this paper raises the conceptual and practical proposals for a new language activism, by putting forward a new short-cut in support of the normalisation of the Basque language. • **Key words:** Language activism, language discourses, subordination, empowerment, Feminist Movement, Basque-language activity.

Lan honen abiaburua, Euskaltzaleen Topaguneak¹, Mugimendu gisa, azken urteetan egindako hausnarketetan² sakontzea da. Era berean, euskalgintzan eta euskaltzaleen baitan maila diskurtsibo zein praktikoa, salto kualitatibo baten eta berritzearen beharra gero eta nabariagoa da³. Beraz, ez da soilik Topagunearen afera, baina Topaguneari zuzenean eragiten dio, euskaltzaleak batu eta aktibatzeke erakunde garrantzitsuenetarikoa baita euskalgintzaren baitan.

Mugimendu Feministaren teoria eta praktikak euskalgintzarako baliagarri izan daitekeenaren lehenengo ideia Mari Luz Estebani entzun nion 2012.eko Udaltop Jardunaldietan⁴. Ordutik, nire jardunean, Euskaltzaleen Topaguneko Kohesio eta Sentsibilizazio arduradun gisa, buruan izan dut gaia. Azken urtean, gainera, gaia indar gehiagorekin mahai gaineratu denez⁵ eta EHUko Antropologia Sozialeko Masterra egiten ari naizenez, bi gaiak lotzea nahiko naturala egin zait⁶.

Lana Antropologia Sozialaren baitan egin da eta hausnarketa eta ekintzara dago bideratua bere xumean. Egiturari dagokionez, euskararen normalizazioaren aldeko eta kontrako diskurtsoak aztertu eta Mugimendu Feministak erabili dituen hainbat baliabide teoriko eta praktika hartuko dira oinarri. Honela, Euskaltzaleen Topaguneak diskurtso eta praktika berri batetarako hainbat zumitz jarriko dira mahai gainean. Zumitz hauetatik saskia egitea beste kontu bat izango da.

Analisirako, hainbat iturri hartu dira oinarri; Euskaltzaleen Topaguneak eginiko azken urteetako hausnarketak, kultura eta hizkuntzen arloko teoriak, euskalgintzaren baitako hausnarketak eta feminismoaren baitako kontzeptu analitikoen eta proposamen praktikoen azterketa.

“Diskurtso eta jokamolde zaharrak aldatzeko ordua iritsi dela dirudi. Pauso kualitatiboak emateko baldintzak badaudela sinesten dute askok. Ezagutza zabaltzen jarraitzearekin batera, erabileran jarri behar dira indarrak. Horretarako diskurtso erakargarri bat eta borondate politikoa behar dira. Borondatea jendartearen esparru guztietan”.⁷

Horrela abiatzen du Lander Arbelaitz (2015/04) kazetariak Argiako Larrun gehigarrian “Euskalgintza; berritu ala hil” erreportai zabalean. Gaia pil-pilean dagoela sumatzen da bazterretan. Euskaltzale antolatuok orde, ardura besteengan utzi eta kikildu barik, gure baitan sinetsi behar dugulakoan nago, gure artean hausnartuz eta antolatuz, jendarteko esparru guztietan eragin eta dagokiguna irabazteko asmoz: gure herrian, gure hizkuntzan bizi ahal izatea, normaltasun osoz. Eta hau gainera,

Orain arteko diskurtsoek gure komunitatearentzat eta jendarteko parte batentzat baliagarri izan zaizkigula, baina beste parte garrantzitsu batentzat ez direla hain baliagarri izan.

euskara bizikidetzarako eta kohesio sozialerako elementu garrantzitsuenetarikoa izanik, beste hizkuntzekin harremanean eta orekan egin behar dugula uste dut.

1. INPOSIZIOAREN ARGUDIOAREN AURREAN AHUL

I Euskararen kontrako diskurtso ageriko eta erdi ezkutuei aurre egiteko gabeziak, erakusten digute, orain arteko diskurtsoek gure komunitatearentzat eta jendarteko parte batentzat baliagarri izan zaizkigula, baina beste parte garrantzitsu batentzat ez direla hain baliagarri izan. Euskararen, eta ondorioz, hizkuntza aniztasunaren, kontrako diskurtsoa indartzen ari da, gainera, azken adian. Joan Mari Torrealdaik 1998. urtera arte bildu zituen euskararen kontrako aipuek (*“El Libro Negro del Euskera”* liburuan jasoak), beste modu batean, sotilago batzuetan, ageriago besteetan, jarraitzen dute. Eta ez hori bakarrik, jendarteko talde zabal batek bere egiten ditu. Horri erantzuteko idatzi zuen, Koldo Izagirrek, *“Autopsiarako frogak”* liburua:

“Metaketa handi bat neukan, tumore bat: euskara inposatu egiten zela; medikuntza on bat izatea zela helburua, ez medikuntza euskaldun bat; ingelesa haurtzarotik hasi behar dela ikasten; fisika eta matematika alorak indartu behar zirela eskolan; euskarak erakarri egin behar duela... eta horren aurrean, euskaldunon ezintasuna, erantzun ahalmen eskasa, sakabanatua eta, oro har, epela, negartia ez esatearren. Halako batean aski diat esan nuen, irainak eta bazterketak agerian uzteko saio batean abiatu nintzen. Horrela sortu zen liburu hori”.⁸

Ale berean (Ibid.), Kike Amonarrizek, euskararen inposizioaren *“diskurtso hori desmuntatu egin behar dela”* dio. Galesen, Katalunian eta bertako hizkuntzen normalizazioan lanean ari diren taldeei segituan aurpegiratzen omen zaie inposizioarena. *“Erdaldunei begira, euskara inposatu egiten dela dioen diskurtsoa argitu egin behar da eta aurre egin behar zaio”*. Lorea Agirrerentzat ere (Ibid.); *“Absurdoa da, baina horra eraman gaituzte, parekatzera euskara eta inposizioa”*. *“Ezin dira euskararen hautua eta askatasun indibidualak parez pare jarri, hori erdal munduak egiten digun tranpa da, gure erantzunak ezetz izan behar du; diskurtso hori txikitu egin behar da”*. Ezin asmatu gabilta kontrako diskurtso horiei aurre egitean. Burua atera ezinik, arrazoirik izango ez bagenu bezala gabilta, konplexuz beterik. Argudiotegi hori eraiki beharrean gaude, kontrako diskurtsoei erantzuteko modu inteligente batean, ez kontrakoen diskurtsoa elikatzeke, baizik eta euskararen normalizazioaren aurrean dauden harri txintxarrak eta harritzarrak bidetik kentzeko. Lan honek norabide horretan lagundu

nahi du, bere xumetasunean, bidezidor berri bat irekitzen lagunduko duelakoan.



2. DISKURTSO MULTZO KOHERENTEA

I “Framing Berria” aldarrikatzen du Iñaki Martinez de Lunak, euskararen normalizaziori begira iritzi publikoan eragiteko diskurtso marko gisa. Hizkuntza Ekologikoaren oinarriak hartzen ditu oinarrian planteamendu berria proposatzerakoan. Sarasuak ere etika ekolinguistikoa hartzen du oinarrian (Euskal Herrian, orain arte, besteren artean, Txepetx eta Xamar izan dira ikuspegi hau zabaldu dutenak), baina bere ustez “*Etika ekologikoak zorrotza behar du izan, jai du bestela*” (SARASUA: 122). *Hiztunpolisa* liburuan Joxmiel Barandiaranen aipu bat ere biltzen du, hizkuntza ekologiarene azalpen motz eta dibulgatiboa:

“Guk ez degu eskatzen baztertzeko, are gutxiago mozteko beste lorerik, gurea bizirik uzteko baizik.

Ondasun kolektibo direla eta, animalia eta landare-espezieek ere beren balioa babestuta eta bultzatuta duten zibilizazio honetan, gehiegi eskatzea ote da hori? Ba horixe eskatzen deguna”.¹⁰

**Autore hauen
aburuz Hizkuntza
Ekologia
diskurtsiboki
eraginkorragoa
izango da, orain
arte baino
gehiago (nahiz
eta orain arteko
diskurtsoak ere
indarra izango
duten,
identitariora
kasu),
euskararen
normalizazioaren
alde jendarteko
kide gehiago
batzeko, edota
behintzat,
aurkako iritziak
neutralizatzeko.**

**Neurri berean,
orain arte erabili
diren hainbat
diskurtso eta
praktika baztertu
ordez,
eraldatzearen
beharra mahai
gaineratu behar
dira. Lehenago
gehiago gaur
egun baino,
identitatearen
diskurtsoak balio
izan du
euskaldunon
komunitatea
aktibatu eta
euskaltzaletzeko.
Hori bai,
atzeman daiteke,
identitatearen
diskurtsoa
eraldatu ezean
eta beste
diskurtsoekin
uztartu ezean,
bere garaian izan
zuen indar
ekintzailea.**

Autore hauen aburuz Hizkuntza Ekologia diskurtsiboki eraginkorragoa izango da, orain arte baino gehiago (nahiz eta orain arteko diskurtsoak ere indarra izango duten, identitarioa kasu), euskararen normalizazioaren alde jendarteko kide gehiago batzeko, edota behintzat, aurkako iritziak neutralizatzeko. *Euskaltzaleen Topaguneak* ere, Mugimendu gisa, bere egiten ditu Hizkuntza Ekologiaren teoria eta praxia, 1.go Kongresuan onartu zen *Oinarriparak* txostenean jasotzen den lez:

“Euskal nortasunarekin bat egitea aski eta soberako argudioa bada gutako askorentzat euskararen alde egiteko, baina tamalez denentzat ez du balio. Hizkuntz ekologiaren paradigma da gure indargunea, gizarte osoari begira.

Biziraupena eta aniztasunaren defentsa gure oinarriak eta konplexutasunaren onarpena gure iparra. Zentzu horretan hizkuntza ekologiaren teorizazioak ezarri dituen oinarriko printzipioak aplikagai izan beharko lirateke nola mugimenduaren diskurtsoetan hala praxian”.

Era berean, Euskaltzaleen Topaguneak hizkuntza aniztasuna (eta ondorioz, jatorri aniztasuna eta kultura aniztasuna) aliatu gisa hartu du. Azken urteotan, hizkuntza aniztasuna eta harrera linguistikoa bultzatzen dituen hainbat egitasmo martxan jarri ditu. Ekinbide hauen bitartez, euskara “*herritar guztion komunikazio eta kohesio hizkuntza*”¹¹ izan dadin eragiten ari da. Neurri batean, hizkuntza ekologiak biltzen dituen oinarriekin bat egiten du; bi diskurtsoek aniztasuna aberastasuna dela aldarrikatzen dute, biek berdintasuna aldarrikatzen dute. Baina hizkuntza ekologia hizkuntzaren planoan mugitzen bada, aniztasunarenak, hiztunen eta hiztun komunitateetan erdiratzen da, ikuspegi sozialago bat eransten diolarik. Gainera, euskara bizikidetzarako beharrezko aldagai gisa planteatzen du eta euskara guztiona dela aldarrikatzen, bakoitzaren jatorria edota hizkuntza dena delakoa dela ere. Bateragarriak dira bi diskurtsook, beraz.

Neurri berean, orain arte erabili diren hainbat diskurtso eta praktika baztertu ordez, eraldatzearen beharra mahai gaineratu behar dira. Lehenago gehiago gaur egun baino, identitatearen diskurtsoak balio izan du euskaldunon komunitatea aktibatu eta euskaltzaletzeko. Zergatik eta zertarako baztertu? Hori bai, atzeman daiteke, identitatearen diskurtsoa eraldatu ezean eta beste diskurtsoekin uztartu ezean, bere garaian izan zuen indar ekintzailea (estatusaren alorra, ikastolen mugimendua, helduen alfabetatze eta euskalduntze mugimendua, tokiko euskaltzaleen elkarten mugimendua etab.) ahuldadean eroriko dela edo behintzat ez dituela euskararentzat funtzio berriak berreskuratuko. Identitatearen diskurtsoa berpentsentatu eta eraldatu beharko litzateke,

barnebiltzaileagoa eta zabalagoa eginez, beste jatorrietakoei ere tokia eginez, esaterako. Aipaturiko diskurtso horiez gain, beste batzuk ere egon litezke, Euskaltzaleen Topaguneko *Berrikusi eta Berrikasi* txostenean “Topalabea” taldeak aldarrikatzen dituenak kasu; “(aniztasunarena, identitatearena), justiziarena, berdintasunarena, bizikidetzarena, erantzukizunarena, justiziarena eta errespetuarena”¹². Hauek guztiek “diskurtso multzo koherentea” osatuko lukete, baina gaur gaurkoz, diskurtso batzuk guztiz garatu eta sozializatu gabe daude, behinik behin. Diskurtso multzo koherenteak gainera, euskararen normalizazioaren alde dauden eragile ezberdinen kontsentsu soziopolitikoak bildu beharko luke, bai euskalgintza sozialaren artean, bai euskalgintza politikoaren artean (erakundeak eta alderdi politikoak) eta baita bien artean ere. Zoru komuna eraiki behar da, honek du lehentasuna. Diskurtsoek gainera doituak izan beharko lukete jendarteko kolektibo bakoitzekiko, eraginkortasuna horrekin lortzen da.



3. BOTERE BORROKA BESTE MODU BATEAN ULERTU BEHARRA

Lorea Agirreren ustez ere, euskararen afera “arazo politikoa da, elkarbizitza arazoa, justizia soziala eskatzen dugu”¹⁴. *Berrikusi eta Berrikasi* txostenak jasotzen dituen diskurtsoen beharrak nolabait bere egiten ditu. Horretarako, gainera, euskaldunon (eta herritar guztion) afera, emakumeen (eta herritar guztion) aferarekin lotzen du. Izan ere;

**Euskaldunok
kolektibo
subalternoa
osatzen dugula
ukaezina da.
Euskaraz bizitzea
hautu nekagarria
da, botere edota
hegemoniari
euskaraz
zuzenduz gero,
diskriminazioa
ekar dezake.**

“Euskal hiztuna, hiztun den heinean, minorizatua da, pertsona eta kolektibo gisa”. “Guri zor zaigu justizia soziala, berdintasunerako politika batzuk, baina zor zaigu horrek askotan ez du ezer esan nahi. Zer egin behar dugu hori lortzeko? Feminismoak erakutsi digu: emakumeei zor zaizkie mila gauza, baina ez zaizkie emango ez badute plaza publikoan jarrera bat hartzen, berdin ekologismoarekin, berdin etorkinekin, berdin langileen baldintzekin. Justizia soziala nola borrokatuko dugu? Gu minoritario izan arren, bilakatuko gara hegemoniko, edo zentral, edo debatean garrantzitsu, edo baldintzagarri?”.¹⁵

Antonio Gramsci eta honen bidetik hamarkada batzuk beranduago Gayatri Chakravorty Spivak-ek (besteren artean) jorratzen duten subalternitatearen kontzeptuarekin lotu daiteke Agirrek mahai gaineratzen duena. Izan ere, subalternoak “azpi” edo “*behemailakotasun*” bat adierazten du, klase hegemoniko edo menperatzailearen baitan eraikitzen dena. Egile hauen idazkiak aintzat harturik Ikasketa Subaltenoen eskola oso bat abian dela esan daiteke boterea eta menperakuntza aztergai dituen (Spivakek gainera emakume beltzen egoera aztertu du, subalternotasunak josiz). Hain zuzen ere, botereari estuki loturik baitago subalternitatea, menpekotasun egoera baten adierazle den heinean. Egoera subalternoa ez da aukeratua, inposatua baizik. Subalternoak kolektibo isilduak dira, baina kontzientzia hartuz, egoera horri buelta eman eta beren ahotsa berreskuratu dezakete.

“Isiltasun” egoera honek are hondamenera kondenatzen ditu, maiz, eragile subalternoaren ahaleginak —gizarte mailan dauden kontrako baldintzak aldarazteko—. Baina honek ez du esan nahi saiatu behar ez denik. Subalternotasuna, funtsean, ez baita gune aukeratua, inposatua baizik. Gainditu beharrekoa, beraz, kritika eta ekintza bidez, ahotsa berreskuratzeko dinamikaren bidez. Zentzu honetan, lan kritikoa praktikatu daiteke, baina ez berez subalternoari ahotsa emateko, subalternoak berak bere kabuz hitz egin ahal izateko baizik”¹⁶

Euskaldunok kolektibo subalternoaosatzen dugula ukaezina da. Euskaraz bizitzea hautu nekagarria da, botere edota hegemoniari euskaraz zuzenduz gero, diskriminazioa ekar dezake. Alorrez alor, botere estamentu ezberdinetan (justizia, administrazioa, polizia, osasuna, hezkuntza, enpresa pribatua...), oraindik orain, Euskal Herriko lurralde batzuetan “lege babesa izanagatik” euskaraz aritzea diskriminatua eta azpiratua izateko hartzen duzun arriskua da. Gure izatea askotan ezkutatu eta “isiltzen” dugu ordea. Gure ahotsa altxa eta botere eta kolektibo hegemonikoen aurka egin ordez, gure izatea ezkutatu eta zapaltzailearen hizkuntza hartzen dugu gurea bailitzan. Edo gurea izan daiteke ere

(beste hizkuntza) eta joko honetan ez sartu. Hizkuntza hegemonikoko hiztun elebakarrak, ordea, ez du egoera hau pairatzen, ez du kezka hau, bere egoera hegemonikoa baita, eta hortaz, zapaltzailea neurri batean.

Nola aurre egin ordea egoera honi? Beste kolektibo subalternoek erabiltzen dituzten diskurtsoak, eztabaidak eta praktikak aztertu genitzake bederen, menpekotasun egoeren aurrean zer nolako estrategia eta dinamikak baliatzen dituzten ikusteko. Euskal Herrian Mugimendu Feministak duen indarra (eta munduko beste Mugimendu Feministekin duen lotura) aintzat hartuz, beren teoria eta praktikak Euskalgintzaren baitan aztertzea ez litzateke burutazio bat. Dena den, jakitun izan behar dugu, “*guk, gure kabuz hitz egin beharko dugula*”, gure egoerak eta minak indibidualki eta kolektiboki aztertuz eta egoera aldatzeko ekintzak antolatuz.¹⁷

Mugimendu Feministaren hausnarketa eta praktikak “*euskaragintzarentzat*” baliagarri izan zitekeela iradoki zuen Mari Luz Estebanek 2012. urteko Udaltop jardunaldietan eginiko hitzaldian:

“Jabekuntzari dagozkion teoriak ez gaituzte soilik eraman kontzientziazioa zer den edo zer izan litekeen berrikustera, baizik eta boterearen kontzeptu bera ere berraztertzea”.¹⁸

Izan ere, jabekuntza edota ahalduntzea, klase subalternoen mekanismo bat da beren egoeraren kontzientzia hartu, ahaldundu eta botere du daitezkeen harremanak eraldatu eta bazterretik erdigunera etortzeko, behintzat “*debatean garrantzitsu edo baldintzarri*” izateko. Subalternotasuna eta ahalduntzea edo jabekuntza guztiz loturik daude, nahitaez. Bata egoera izango litzateke (azpiratua) eta bestea (ahalduntzea), hortik ateratzeko bidea.

Azken aldian indartzen ari da bi zapalkuntzen arteko elkartrukea proposatzea, elkar bustitzen ari dira, (norabide bakarrean gaur gaurkoz, nago ez ote den euskalgintzaren “*estankamenduaren*” beste sintoma bat, baina gatozen harira). 2015.eko *Korrikak*¹⁹, esaterako, *euskAHALdun* izan du goiburu (ahalduntzeari erreferentzia eginez) eta Lorea Agirrek eginiko mezuak²⁰ feminismoak erabilitako kontzeptuak bildu ditu:

“Hizkuntza bakoitzak bere boterea du. Hizkuntza bakoitzak bere kapital linguistiko eta kulturala du. Hizkuntza bakoitza hegemonian ala azpian dagoen ikusten da. Argi esan behar da, borrokan daude”.²¹

Ikusten denez bi mailez ari gintezke hizkuntzen arloan botereaz ari garenean, hizkuntzaren baitakoa eta hiztuna edota hizkuntza komunita-

**Beharbada
ahalduntzearen
eta boteretzearen
proposamen
honek, plano
indibidualean
egiten du
ekarpena, hiztun
gisa kontzientzia
hartzeara,
ahalduntzea eta
boteretzea,
alegia, ondoren
maila
kolektiboan
eragiteko,
kolektibo gisa
boteretzeko,
betiere ekintzara
bideratua.**

tearena. Baina bi mailak elkar harremanean daude, estuki gainera. Berhabada ahalduntzearen eta boteretzearen proposamen honek, plano indibidualean egiten du ekarpena, hiztun gisa kontzientzia hartzea, ahalduntzea eta boteretzea, alegia, ondoren maila kolektiboan eragiteko, kolektibo gisa boteretzeko, betiere ekintzara bideratua.

Euskararen eta ondoan dituen erderen arteko boterearen afera ez da kezka berria, maila ezberdinetan landu izan da (Txepetxek²² berak ere boterearen inguruko proposamenak egin zituen). Fishmanek gogorazten digun bezala, egoera diglosikoak dakar berekin boterearen auzia²³.

Hizkuntza praktika jakinek botere harremanak baldintzatzen dituzte. Pierre Bourdieauk soziologo frantsesak ederki aztertu zituen hizkuntza praktiken arteko botere harremanak. Penelope Harveyk bere teoriak baliatuz, quechuadunen eta gazteleradunen arteko botere harremanak aztertu zituen Perun, quechuadunek botere eramendu ezberdinen aurrean nola beren hizkuntza isiltzen duten adieraziz, eta gaztelera hartzen duten azalduz. Izan ere, hizkuntza bakoitzak bere boterea du, bere botere sinbolikoa eta hiztun elebidunek askotan botere auzitik ongi ateratzeko (epaiketa bat kasu, Harveyk aztertu gisa) botere gehien duen hizkuntza aukeratzen du.

“Bourdieu (1977) se refiere a este potencial y lo llama capital simbólico. Bourdieu ve el lenguaje como instrumento de poder. En vez de competencia lingüística, habla de la competencia práctica o el capital simbólico. Este se refiere a la capacidad que tenga el orador para invocar la autoridad necesaria para que el oyente lo escuche”.²⁴

Izan ere, botere harreman hauen atzean biolentzia sinbolikoa dago. Bourdieuren definizioaren arabera, biolentzia modu honen ezaugarri nagusia pairatzen dutenek, biolentzia gisa ez ikustean datza. Izan ere, zapalkuntza naturala bailitzan hautematen dute, eta ondorioz, onartzen dute.

“El ejercicio de violencia simbólica es tan invisible a los actores sociales precisamente porque presupone la complicidad de los que más sufren de sus efectos” (John B. Thompson in *Studies in the Theory of Ideology*).²⁵

Emakumeen zapalkuntzarekin gerta moduan, gutxiagotutako hiztunoi gauza berdintsua gertatzen zaigu: zapalkuntza naturalizatu eta ikusezina zaigu eta ez gara zapalkuntzaz ohartzen, horri aurre egiteko mekanismoak abian jartzen ez ditugun bitartean. Zapalkuntza ordea ez da hizkuntzen mailara mugatzen. Hizkuntzek hiztunak eta hizkuntza komunitateak

dituzte, hizkuntzak komunikaziorako praktika eta kode sozialak diren heinean. Beraz, hizkuntzen zapalkuntzaz gain, hiztunen eta hizkuntza komunitateen zapalkuntzaz aritu beharko genuke, are eta gehiago berau “sistematikoa” bada.

Zapalkuntza honi nola aurre egin ordea, hortxe dago gakoa. Euskaltzaleen Topagunearen *Oinarriparrek*, bere jarduna hiztunen eta hiztun komunitateen erdiratzea iradokitzen du.

“Aurrerantzean gutxiagotan hitz egin beharko genuke hizkuntzek berez badituzten eskubideei buruz eta gehiagotan hiztunen eta hiztun komunitateetan antolatutako pertsonen eskubideez gure diskurtsoak sozializatzerakoan. Hiztunen portaera asertiboek, bere emozioen lekukotzak, bere identitatearen praktika koherenteak eragingo du orain eta hemen besteengan, ez hainbeste noizbaiterako abstrakzio liluragarri batek. Autoafirmatutako euskaldun antolatuen trinkotzean ere, eremu sinbolikoaren egituratzean...”²⁶

Eta bide honetatik lotu ahal genezake Feminismotik mundu mailan, bai eta Euskal Herrian ere, bultzatzen ari diren Jabetza edo Jabekuntza Eskolekin? Bide hori da hain zuzen ere antropologia feministaren bidetik proposatzen zaiguna:

“Hiztunen planoa berreskuratzea eskatzen du aro honek. Urte luzeetan hiztun komunitatean eragitea izan da lehentasun euskara elkarrekin, aurrerantzean, ordea, orain arte baino arreta handiagoa eskaini beharko zaio arlo honi. Hiztun gisa, liseriketa egiteko tresnak eskaini beharko lituzke mugimenduak, hiztunari gertatzen zaiona ulertzeko, gezur sozialen irakurketa kritikoa egiteko, nazio mailan oro har gutxiengo izatearen kontzientzia lantzeko, portaera asertiboak aktibatzeko; beti ere, Euskal Herriko biztanle prototipoa euskalduna izateko borondateari uko egin gabe”.²⁷

Euskaltzaleen Mugimenduak formazio eta “liseriketa” ikastaroak antolatzen ditu. Baina posible litzateke, herriz herri, Mugimendu Feministak antolaturiko Jabekuntza Eskolen bidetik, Euskaldunen Jabetze Eskolak bultzatzea, hiztunen zapalkuntza, praktika eta aktibismoaz hausnartu eta hiztunok jabetu, ahaldundu eta boteretzeko? Nago, askotan formazio zurrinak proposatzen ditugula eta hiztunek dituzten bizipen, hausnarketa eta proposamenak bilduko lituzkeen guneak gehiago eskaini beharko liratekeela. Hiztunak norbanako burujabe eta pentsalari gisa onartu eta kolektibo gisa boteretzeko bitartekoak jarri beharko lirateke. Feminismoak darabilen jabekuntza kontzeptu eta praktikak hizkuntza gutxiagotueta hiztun eta komunitateentzat baliagarri izan daitezke, teorikoki bederen baditu hainbat abantaila:

“Jabekuntza kontzeptu sozio-politikoak kontzientziazioaren ohiko definizioak eta parte-hartze politiko formala aberastu eta gainditu nahi ditu: eskubideen urraketa eta testuinguru politiko eta kultural orokorra ondo ezagutzeaz gain, norbanako eta taldeko eraldaketetan zerikusia duten eta aldaketa bera oztopatzen duten prozesu psikologikoak, politikoak, kognitiboak eta ekonomikoak aintzat hartuz”.²⁸

4. NOLA ERANTZUN? MUGIMENDU FEMINISTATIK, ZERTZELADAK

I
Euskararen berreskurapen prozesuaren aurkako diskurtsoei erantzuteko ezintasuna, erantzun ahalmen exkasa... jaso da Koldo Izagirreren goiko aipuan²⁹. Idurre Eskisabelek ere ildo beretik jotzen du eta Feminismoak izan duen erantzuteko ahalmena goraipatzen du:

“PSEko gazteak “Euskera askatasunean” kanpainarekin esaten ari dira badagoela hizkuntzen arteko berdintasun bat, nik inondik inola ikusten ez dudana, eta, gainera, badagoela inposizio bat, euskara dela menperatzailea. Eta egungo diskurtso matxistek estrategia bera darabilte: “Berdintasuna badago, eta, gainera, feministak “feminaziak” zarete”. Pentsatzen dut feminismoak gaur egun baliabide gehiago dituela horri aurre egiteko, tradizioz ez zaiolako inporta izan lotsagabea izatea, edo konfrontatzea, borroka egitea edo katalogatua izatea. Hizkuntzari dagokionez, ordea, azken urteotako diskurtsoa izan da li-murtzea, erakartzea”.³⁰



Idurre Eskisabelek dioenarekin bat eginez, euskararen aurkako erasoan aurrean, Euskaltzaleen Topaguneko kideok eta euskaltzaleok oro har, askoz ere lotsagabeago aurre egin beharko geniokeelakoan nago. Izan ere, diskurtso “sinpatikoak” soilik erabiltzen baditugu eta erasoei ez erantzun, erasotzaileek eta beren argudioek irabazten dute. Asmatu beharko genuke, gure kontra etorriko ez den modu batean, erasoei aurre egin eta erasotzaileen aurka bideratzen. Gaur gaurkoz, erantzuna antolatu gabe dagoenez “merke xamar” ateratzen zaizkie horrelako kanpainak. Beste aukera bat eraso hauei kasurik ez egitea izan daiteke, beren eragina ez handiagotzeko. Baina horrelako mezu publikoek jendarteko “uste faltsuetan” eragina dute, eta beraz, nire ustez, Mugimendu Feministaren eredia jarraitu beharko genuke, erasoei argudioekin eta modu inteligentean erantzunez.

Medikuntzako ikasleek aurtengo EHUko medikuntzako graduazio ekitaldian eginiko salaketa ekintza performatiboa, eredugarritzat jo genezake. Izan ere, medikuntzako ikasle euskaldunen ordezkariak euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatzeaz gain, mediku ona/ euskalduna arteko tranpa (jendartearen zabaltzen saiatzen diren, “zer nahiago duzu mediku euskalduna ala ona?”) desmuntatzea lortu zuten, MIR azterketako Estatu mailako azterketan lehen hamarren artean EHUko bi ikasle zirela-eta (“mediku euskalduna eta ona nahi dugu, posible da” dikotomia indartuz, eta argudioz, modu eraikitzailean, arduradunak lotsagorrituz eta zabalpen handiarekin lortu zuten, gainera):

“Ekitaldi honetan zehar hainbat alditan entzun dugu jasotako formakuntza bikoiztaren fruitua direla, baina inork esan al du biak zirela euskal adarreko ikasleak? Ez du honek erakusten posible dela mediku ona eta euskalduna izatea?”.³²

Horretan egon liteke gakoa, aurretik aipatu modura, euskararen aurkako diskurtsoa edota euskara eta inposizioa batzen dituen ekuazioa desmuntatzea. Eta beharbada Mugimendu Feministak egiten duen lez, “kontraerasora” jo beharko genuke gure zapalkuntza justifikatzen dutenen aurrean. Modu inteligente eta umoretsuan egin liteke gainera. Azken batean, zein da euskaldunen aurkako batzuen argudioa? Modu nahiko agerikoan, eraso hauetan klase eta jatorri kontuekin lotzen dute euskararen eta euskaldunen aurkako argudioa. Beren hegemonia ez galtzeko darabilten argudio inozoa da baina jendarte kohesiorako arriskutsua dena.

“Beren burua oso kosmopolitizatzen duten asko klasista batzuk baino ez dira. Bertakoa, euskalduna, mespretxatzen dute eta nekazarien edo baserritarren

**Euskararen
aurkako erasoan
aurrean,
Euskaltzaleen
Topaguneko
kideok eta
euskaltzaleok oro
har, askoz ere
lotsagabeago
aurre egin
beharko
geniokeelakoan
nago.**

**“Kulturadunak-
basatiak”
dikotomia
elikatzen dute
hizkuntza
hegemonikoetako
boteredunek, eta
“publiko-
pribatua”.**

pare ipintzen. Ez al zarete ohartu? Señoritoek, iraindu nahi dutenean, nekazaria hartu ohi dute: ‘aldeano’, ‘vascorro’, ‘palurdo’, ‘paleta’, ‘cashero’. Haientzat, euskalduna berdin nekazaria”³³.

Oraindik orain, milaka euskaldunek eta hizkuntza gutxiagoturiko hiztunek pairatu izan dugun iraina, ez da apaldu eta arian-arian mahai gaineratzen da³⁴. Eraso hautako batzuk, irabazi politikoak (bozkak) lortzeko darabilte gainera (PSEko gazteen kanpaina eta alderdi bereko Ernesto Gascoren adierazpenak edota beherago aipatuko den Carolina Punseten adierazpenak, kasu). “Kontraerasorako” orde aurretik aipaturiko “diskurtso multzo koherentea; (aniztasunarena, identitearena), justiziarena, berdintasunarena, bizikidetzarena, erantzukizunarena, justiziarena eta errespetuarena)”³⁵ indartu eta elikatu beharko litzateke eta modu inteligentean baliatu. Argudioak eraikitzen eta modu egokian plazaratzen dago gakoa.

“Kulturadunak-basatiak” dikotomia elikatzen dute hizkuntza hegemonikoetako boteredunek, eta “publiko-pribatua”. Beste lurralde batzuetako hizkuntza gutxiagotueta hiztun komunitateei ere neurri berean eragiten die. Horren adibide, Vincenç Claverier aktibista okzitaniarrak plazaratutakoa; “hizkuntza gisa baino gehiago, basa mintzairatzat hartu izan da okzitaniera, eta balorizazio lan handi bat dugu egiteko”³⁶ edota Herrialde Katalanetako Valentziako parlamentuko Ciudadanos alderdiko Carolina Punsetek eginiko adierazpenak:

“La importancia de una educación que no “abandone las lenguas universales para recuperar una minoritaria —el valenciano— que, aunque puede ser entrañable, es poco útil para encontrar empleo”. (...) Allí donde triunfa la inmersión lingüística estamos volviendo a la aldea”³⁷.

Hots, hainbatetan plazaratu ohi diren esaldi eta argudioek erakusten dute “hizkuntza gutxiagoturiko hiztunak, basatiak garela, ez garela kulturadunak, txokokeriatan ari garela mundura begiratu gabe”. Edota, “zuen hizkuntzak etxerako balio dezake baina plaza publikorako gure hizkuntza “handia” da beharrezko”. Emakumeen zapalkuntza unibertsala ulertzeko ere, antzeko dikotomiak planteatu dira ikuspegi kulturalistatik: “natura/kultura”, “domestiko-pribatua/publikoa”. Uste zabaldu hauei Mugimendu Feministaren indarraz nola “desmuntatu” diren aztertzea garrantzitsua da beraz. Eta bien (emakumeen eta hizkuntza gutxiagoturiko hiztun komunitateen) zapalketaren antzekotasunak aztertzea ere oso interesgarria izan daiteke, beste kolektibo subalternoekin lotuz.



**Mugimendu
Feministak
praktika
matxista eta
erasotzaileak
darabiltzaten
gizonak
salatzeko,
berauei modu
“lotsagabe”
batean izendatu
eta
interpelatzean
dituzte.**

Mugimendu Feministak praktika matxista eta erasotzaileak darabiltzaten gizonak salatzeko, berauei modu “lotsagabe” batean izendatu eta interpelatzeko dituzte. Sarean, jarrera matxistak adierazten dituztenei aurre egiteko hainbat kontzeptu sortu eta hedatu dituzte, gaztelaraz, “machirulo”, esaterako. Eta piskanaka-piskanaka kontzeptua euskaratu eta plazak hartzen ari da (goiko argazkia horren erakusgarri). Kontzeptu hau, erasoak eta erasotzaileak identifikatzeko eta salatzeko oso baliagarri da. “Izenak badu izana”, ordura arte “isilduriko” kolektiboa altxatu eta eraso “ikusiezinak” bistaratzen baitira eta egoera iraultzeko helduleku kontzeptual eta praktikoa oso egokia da. Era berean, kontzeptua argia da, kontzeptu bakar batean ideia multzo oso bat eraiki ahal delarik eta kontzeptuak berak zer esan nahi duen jakitea ez da hain zaila (gizontasun hegemoniko matxista; “machista” eta “chulo” hitzen arteko nahasketa).

Euskalgintzara etorritik, azken aldian, sarean behintzat bai, euskararen aurkakoei izendatzeko erabiltzen ari den kontzeptua baliagarri suertatu daiteke euskararen aurkako erasotzaileak izendatu eta “kontraerasoa” antolatzeke; “Kosmopaletto”.

“Hiztegietan ez da ageri kosmopaletismo hitza, baina erraza da ulertzen; erdarazko “paletto” eta kosmopolita hitzen elkartetatik eraiki baitugu, gurean gero eta gehiago direlako mugimendu berriaren jarraitzaileak, politikarien artean batez ere”.³⁹

**“Kosmopaleto”
kontzeptua
egokia izan
daiteke
euskararen
kontrako
erasotzaileak
identifikatu eta
erasoei
erantzuteko.**

“Matxirulo” gisa, “kosmopaleto” kontzeptua egokia izan daiteke euskararen kontrako erasotzaileak identifikatu eta erasoei erantzuteko. Kontzeptua argia da eta orain arte “isildutako” euskaltzaleok helduleku garrantzitsua izan genezake, eraso “ikusezinak” agerian uzteko. Izan ere, ustez kosmopolita diren horiek, baina, azken finean, beren hizkuntza nagusi izango den eredua inposatu nahi dute. Hizkuntza aniztasunaren orde, hizkuntza hegemonikoak inposatzea bilatzen dute. Nik uste, eredu horri, zehaztasunez eta umorez aurre egin ahalko litzatekeela. “Kosmopaleto” kontzeptua baliatuz sarean jarrera eta eraso “kosmopaletoak” identifikatu eta salatzeke sare osak genezake edota kaleko antzerki edo performanceen bidez erasotzaileak salatu, edota beste hainbat gauza. Aktibismoa elikatzeko ideiak aterako dira, “kontraerasoa” antolatzean dago gakoa, euskaltzaleok ahaldundu, jabetu, boteretu eta aktibatzeke.

Bestelako kolektibo subalternoen sistema hegemonikoaren magalean beraiei izendatzeko irainei buelta ematen asmatu dute. Hau da, hitzen adiera irauli eta hizkuntzaren bidez adierazten den dominazio eredua hankaz gora jartzean datzana. AEBtako afroamerikarrek erabilitako “Nigger” eta “black” adierak, LGTB Mugimenduak proposaturikoak edota Mugimendu Feministak “queer” teoriaren baitan proposaturikoak:

“Queer mugimenduak egin zuen bezala, hitzak bereganatuko ditugu, eta puta izateak sexualki askea, independentea, norbere buru eta gorputzen jabea, langilea, sistemaren kontrakoa... izatea esan nahi badu, ni ere puta bat naiz”.⁴⁰

Beraz, jasotako irainei eta argudio ahulei erantzun egiten zaie, batetik, eta irain horiek hartu eta zentzuz aldatzen dituzte, bestetik, botere harremanak iraultzeko asmoz. Euskaingintzatik, euskal hiztunon aurka erabili dituzten irainak hartu eta beren aurka proiektatu genitzake? “Cashero-a, aldeana-o, palurda-palurdo...” erabil ganitzake? Baliagarri suerta daitezke botere harremanak iraultzen hasteko? Euskaltzaleen kontzientziak pizteko? Aktibismo berri baterako? Hausnartu beharko genuke honen inguruan ere.

5. ABIATUKO DUGU BIDEA BIDEZIDORREAN?

I

“Batetik, erakarri behar ditugu gure inguruan dauden erdaldun euskaltzaleak, komunitateak hazten jarrai dezan, gure elkarteak eta mugimendu osoa haz daitezten. Baina bestetik jarraitu behar dugu euskalduntasuna euskaldunaren erdigunean kokatzen (euskaltzaleak ez diren euskaldunak euskaltzalezen) eta jarraitu behar dugu euskaldunen trinkotzea areagotzen...”⁴¹

Lan honetan jasotakoek, orain arte hartutako bideari ez dio iskin egiten. Euskaltzaleen Topaguneak azken Kongresuetan erabakitako ildoak garrantzitsuak dira eta sakondu behar direlakoan nago, oinarritzakoak diren neurrian. Baina era berean, euskararen aurkako diskurtsoei aurre egiteko bidezidor bat gehitu beharko geniekeela uste dut. Bidezidorrak gainera, aurreko bideak oztopatu barik sendotu beharko lituzke eta horretarako, umorea eta sorkuntza ⁴² (kale performanceak, sareko gerrillak, aldarrikapen irudimentsuak etab.) aliatu onak izan ditzakegu. Euskaltzaleen aktibismorako baliagarri suertatu daitezkeen hainbat argudio eta proposamen biltzen saiatu naiz lan honetan. Mugimendu Feministatik (batez ere) egindako hainbat proposamen eta kontzeptualizazio bildu eta euskararen normalizazioaren baitan hauspo berriz ekiteko hausnarketak iradoki. Abiatuko dugu bidea bidezidorrean?

ESKERRAK

Lan hau, pertsonala bezain kolektiboa da, bizipenez, esperientziez, lan jardunaz, harremanez, irakurketez, eztabaidez, maitasunez eta aktibismoz eraikia.

Eskerrak zinez, Aitzpea Leizaola Masterreko zuzendari eta lan honen editore izan eta irakurketa kritikoa egiteagatik eta Jone Miren Hernandez irakasleari, Master Bukaerako Laneko gaia zehazten laguntzeagatik.

Eskerrak Euskaltzaleen Topaguneko lankideei, eta batez ere, bertako zuzendari den Jasone Mendizabali eta gestore den Oskar Zapatari, lan hau egiteko emandako erreztasunengatik.

Eskerrak bihotzez lan honetan lagundu nauzuen lagunei: Txatxilipurdi Elkarteko, Aitzpea Otxandiano, Ekin Emakumeak Elkarteko eta masterreko ikaskide izan den, Leire Estevez, Pil pilean elkarteko, Maite Quintanilla, Hernaniko Berdintasun teknikari eta Mugimendu Feministako kide den eta urteetan bidelagun izan dudana, Maialen Apezetxeari, Jaime Altuna eta Josu Ozaita antropologoei, aldi berean ikasketa feministak egiten ari zen Jone Tolosari (elkarrekin ikasi dugu) eta gertuko lagun ditudan Mikel Imaz eta Mikel Agirrezabalari.

Eskerrak familia guztiari (aupa Irati!), nire makulu zaretelako.

Eskerrak ere, Arantzako Aterpekoei, jaten ondo eman eta ondo zaindu zenidatelako lan hau egiten buru belarri nenbilenean.

Eskerrak, azkenik, Masterretako irakasle eta ikaskide kultura artekoei

klasean izandako eztabaidengatik. Eskerrik asko subalternoen arteko elkar harremanengatik eta euskaldun gisa onartzeagatik.

Euskaldun gisa, koherentziaz, umoretsu dabilizan aktibista guztiei eskainia. ●

OHARRAK

1. Tokiko Euskaltzaleen Elkarteek osatzen duten Topagunea da. Azken urteotan egindako Kongresuen ondoren Mugimendu gisa osatzeko bokazioa du.
2. Egindako 2 Kongresuetan Oinarriparrak eta Eraldabideak txostenak onartu ziren onarpen handiarekin.
3. Larrun gehigarria, Argia aldizkaria, (2015/04) 197.alea. “Euskalgintza, berritu ala hil”.
4. ESTEBAN, Mari Luz (2012); “Feminismoa euskaragintzarako gogoeta tresna?”. Udaltop Jardunaldiak. Lasarte-Oria.
5. Hor kokatu genitzake, Esteban berak, Lorea Agirrek, Idurre Eskisabelek eta Onintza Iruretak (batez ere) eginiko elkarrizketa, hitzaldi eta eztabaidak (Mugimendu Feministak zein Euskalgintzak antolatutak) eta AEKk antolatzen duen 2015.eko Korrikaren goiburua nagusia (euskAHALdun, ahalduntzeari erreferentzia egiten diona) eta Korrikaren mezuak (10 egunez testigu batean eskuz esku ibili zena Euskal Herriko luze zabalean eta Bilboko amaiera ekitaldian Lorea Agirrek berak idatzitakoa irakurri zuena milaka euskaltzaleen artean). Mugimendu Feministaren aldarri, teoria eta praktikak Euskalgintzara ekarri nahi izan direla baieztatu daiteke, beraz.
6. Gainera, lan honen iturburua 2014-2015 ikasturteko 2. lauhilabeteko “Antropologia, Genero eta Feminismoa(k)” moduluko ebaluaketarako prestatu nuen lana da. Modulu hau, “Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterrekoekin” batera egin genuen. Masterreko nire zuzendari eta lan honen editore eta zuzentzaile; Aitzpea Leizaola.
7. Larrun gehigarria, Argia aldizkaria, (2015/04) 197.alea. “Euskalgintza, berritu ala hil”.
8. Ibid.
9. Aipaturiko Larrun gehigarriko azala. Bertan, euskalgintza zaharra (txuribeltzean eta gizonetarekin irudikatua, lehen planoan Txillardegiko dagoela dirudi) euskalgintza berriarekin (koloretan eta emakumeekin irudikatua, Txillardegirekin ordezkatzaren dena Lorea Agirre dela dirudi) ordezkatzaren irudikatzen da, eskuekin afitxa zaharra berriarekin ordezkatzu.
10. Joxemiel BARANDIARAN IN SARASUA, Jon (2013:118); “Hiztun polisa. Euskaltzaleen norabideaz apunteak”. 2. argitaraldia. Pamiela, Iruñea.
11. “Euskara partekatzen duguna” dekalogoak biltzen du Topaguneak Mugimendu gisa aniztasunarekiko duen ikuspegia. <http://topagunea.eus/euskara-partekatzen-duguna/>
12. Topaberri aldizkaria. 66. zenbakia (2015eko maiatza); “Berrikusi eta berrikasi. Euskaltzaleok batzen gaituena garrantzitsuagoa delako”. Euskaltzaleen Topagunea.
13. Ibid. Azala.
14. Larrun gehigarria, Argia aldizkaria, (2015/04) 197.alea. “Euskalgintza, berritu ala hil”.
15. Ibid.
16. GÁLFAZ, Imanol (2005:71); “Kultura eta identitate erbesterratuak (Nomadologia subalternoa)”. Pamiela, Iruñea.
17. Txerra Rodríguezek ere bere Garaigoikoa blogean, EHko Mugimendu Feministaren historia biltzen duen “Gure genealogia feministak” liburua irakurtzerakoan, Mugimendu feministak eginiko barne lanketa Euskara Elkarteentzat baliagarria izan daitekeela aldarrikatzen du. <http://blogak.com/garaigoikoa/emakume-elkarteak-eta-euskara-elkarteak>
18. ESTEBAN, Mari Luz (2012); “Feminismoa euskaragintzarako gogoeta tresna?”. Udaltop Jardunaldiak.
19. AEKk bi urtez behin antolatzen duen lasterketa herritarra euskararen normalizazioaren alde. Biziki interesgarria, Teresa del Valleren Korrikari buruzko etnografia (Ikus bibliografia).

20. 10 egunez eskuz esku pasatzen den testiguan doan mezua eta Bilboko bukaera ekitaldian irakurri zuena, *Bagara nor*. <http://argia.eus/albisteak/korrikako-lekukoan-eskuz-esku-euskal-herria-zeharkatu-duen-mezua-bagara-nor>
21. AGIRRE, Lorea in Larrun aldizkaria, 197.a. “Euskalgintza, berritu ala hil”.
22. SÁNCHEZ CARRIÓN, José María “Txepetx” (1987); “*Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*”. Lizarra.
23. FISHMAN, Joshua (1967). “*Bilingualism with and without diglossia; diglossia with and without bilingualism*”. *Journal of Social Issues* 23 (2): 29–38.
24. BOURDIEU IN HARVEY, Penelope (1989:113); “*Lenguaje y relaciones de poder: Consecuencias para una política lingüística*”, in “*Allpanchis. Lengua, nación y mundo andino*”. Nos. 29/30. Instituto de Pastoral Andino. Cusco.
25. HARVEY, Penelope (1989:115); “*Lenguaje y relaciones de poder: Consecuencias para una política lingüística*”, in “*Allpanchis. Lengua, nación y mundo andino*”. Nos. 29/30. Instituto de Pastoral Andino. Cusco. 105-131.
26. “*Oinarriparrak*” txostena, Euskaltzaleen Topagunea <http://topagunea.eus/doc/euskaldunon-elkarteak-oinarriparrak/>
27. “*Oinarriparrak*” txostena, Euskaltzaleen Topagunea <http://topagunea.eus/doc/euskaldunon-elkarteak-oinarriparrak/>
28. ESTEBAN, Mari Luz (2012); “*Feminismoa euskaragintzarako gogoeta tresna?*”. Udaltop Jardunaldiak. Lasarte-Oria.
29. Larrun gehigarria, Argia aldizkaria, (2015/04) 197.alea. “*Euskalgintza, berritu ala hil*”.
30. “*Bazterrean elkartuta*”. 2015eko martxoaren 8an, Lorea Agirre, Idurre Eskisabel eta Mari Luz Estebani Maite Asensiok Lozanok eginiko elkarrizketa. Berria egunkarian argitaratua. Idurre Eskisabelen aipua.
31. “*Los enemigos para el euskera son el PNV y EH Bildu*”. JSE-EGAZ in <http://jse-egaz.org/contenido/509/los-enemigos-para-el-euskera-son-el-pnv-y-eh-bildu/>
32. Medikuntza graduazio ekitaldia: <https://youtube.com/watch?v=vgyI2edf9ZU> (52.702 ikustaldi 2015-06-04ean)
33. Bernardo Atxagari eginiko elkarrizketa 2015eko martxoaren 16an. El Correo Español egunkaria. <http://elcorreo.com/bizkaia/culturas/libros/201505/16/hinki-hanka-gabe-esango-20150515184939.html>
34. “*Yo quiero una ciudad abierta, cosmopolita y no cada vez más pueblerina*”. Ernesto Gasco in <http://www.socialistasdonostiarras.es/fichanodo.php?queidioma=1&quetipo=1&quenodo=2493>
35. Topaberri aldizkaria. 66. zenbakia (2015eko maiatza); “*Berrikusi eta berrikasi. Euskaltzaleok batzen gaituena garrantzitsuagoa delako*”. Euskaltzaleen Topagunea.
36. “*Hizkuntza gisa baino gehiago, basa mintzairatzat hartu izan da okzitaniera, eta balorizazio lan handi bat dugu egiteko*” in http://www.berria.eus/albisteak/111710/okzitaniera_eremu_handi_batean_hedatua.htm
37. “*Punset incendia Les Corts: “El valenciano es entrañable pero poco útil para buscar empleo*” in <http://www.publico.es/politica/punset-incendia-les-corts-valenciano.html>.
38. “*Matxirulorik gabe askoz hobe*” artikulua. Zizurkilgo Aizan Talde Feministaren festetako kanpaina: <http://ataria.info/zizurkil/1441360813424>
39. “*Kosmopaletismo politikoa*”. Loiola Aretxabaleta in <http://zuzeu.eus/2015/05/17/kosmopaletismo-politiko/>
40. “*Put a baten istorioa*”. Oihana Etxeberrieta Legrand in http://www.bilgunefeminista.org/dokumentazioa/ek2_puta_baten_istorioa.pdf
41. “*Eraldabideak*” txostena, Euskaltzaleen Topagunea <http://topagunea.eus/doc/federaziotik-mugimendura-eraldabideak/>
42. Plataforma per la Llengua erakunderen “*Plataforma per la Llengua i Minoria Absoluta*” bideo laburren ildoa egokia izan daiteke. https://youtube.com/playlist?list=PLICJqTMq5R8-OTT8_IJ2ISLOzQLZUaZh Edota bere garaian, Lapurdi, Behe Nafarroan eta Zuberoan

Demo Mugimenduak eginiko salaketa eta desobedientzia ekintza ikusgarriak ere norabide bat markatu dezakete.

ITURRIAK

> HITZALDI ETA ELKARRIZKETAK

“Mugimendu Feminista; balantzea, dilemak eta ikuspuntuak” mahai ingurua. Hizlariak; Edurne Epelde Pagola (Emagin), Maria Martinez (Soziologia II departamentua EHU) eta Anabel Sanz (FeminisAlde, Berdintasun Teknikaria). Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra, Gizarte Antropologia Masterra. Gradu aretoa, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. Donostia, 2015eko maiatzaren 14a.

“Demo Mugimenduko” euskararen alorra bultzatu zuen Gorka Torreri eginiko elkarrizketa laburra. Bizi Toki Ikastola. Behauze, 2015eko maiatzaren 31a.

> BIBLIOGRAFIA-ERREFERENTZIAK

BOURDIEU, Pierre (2001); *“¿Qué significa hablar?”*. Akal. Madril.

BULLEN, Margaret eta **KEREXETA**, Xabier (2013); *“Genero-indarkeriaren erakundetzea bidasoaldeko alardeetan”*. Indarkeriaren Antropologia. Ankulegi (Gizarte Antropologia aldizkaria).

BUTLER, Judith (1998); *“Actos performativos y constitución del género: un ensayo sobre fenomenología y teoría feminista”*. Debate feminista. 296-214.

DEL VALLE, Teresa (1988); *“Korrika: rituales de la lengua en el espacio”*. Anthropos.

DEMO MUGIMENDUA (2002); *“Demokrazia Euskal Herriarentzat-Démocratie pour le Pays Basque”*. Gatuzain. Baiona.

EPELDE PAGOLA, Edurne; **ARANGUREN ETXARTE**, Miren; **RETOLAZA GUTIERREZ**, Iratxe (2015) *“Gure genealogia feministak. Euskal Herriko Mugimendu feministaren kronika bat”*. Emagin, Espartza Galar.

ESTEBAN, Mari Luz (2012); *“Feminismoa euskaragintzarako gogoeta tresna?”*. Udaltop Jardunaldiak.

FISHMAN, Joshua (1967). *“Bilingualism with and without diglossia; diglossia with and without bilingualism”*. Journal of Social Issues 23.

FRASER, Nancy (2012); *“La política en la era del reconocimiento: un enfoque bidimensional de la justicia de género”*.

GALFARSORO, Imanol (2005); *“Kultura eta identitate erbesterratuak (Nomadologia subalternoak)”*. Pamiela, Iruñea.

HAINBAT KIDE, (2014); *“Dabilen harriari goroldiorik ez; militantziaz eta horizontaltasunaz hausnartzen”*. Joxemi Zumalabe fundazioa.

- HARVEY**, Penelope (1989); “*Lenguaje y relaciones de poder: Consecuencias para una política lingüística*”, in “*Allpanchis. Lengua, nación y mundo andino*”. Nos. 29/30. Instituto de Pastoral Andino. Cusco. 105-131.
- IZAGIRRE**, Koldo (2010); “*Autopsiarako frogak, artseniko aztarnak gure hizkuntzan*”. Susa. Zarautz.
- MARTINEZ DE LUNA**, Iñaki (2012); “*Euskarak duen Framing Berri baten premia asetzeko proposamena*”. BAT soziolinguistika aldizkaria: http://www.soziolinguistika.eus/files/I%C3%B1aki%20Mart%C3%ADnez%20de%20Luna_0.pdf
- OZAITA AZPIROZ**, Mikel (2011); “*Auzoko egitasmoa, gerturapen bat*”. BAT aldizkaria. <http://www.soziolinguistika.eus/files/Mikel%20Ozaita.pdf>
- PLATERO**, Raquel (Lucas) (2012); “*Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*”. Bellaterra edizioak. Bartzelona.
- SÁNCHEZ CARRIÓN**, José María “Txepetx” (1987); “*Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*”. Lizarra.
- SARASUA**, Jon (2013); “*Hiztun polisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak*”. 2. argitaraldia. Pamiela, Iruñea.
- TORREALDAI**, Joan Mari (1998); “*El libro negro del Euskara*”. Ttartaló. Donostia
- ZULUAGA SANCHEZ**, Gloria Patricia (2014); “*Ecofeminismos: Potencialidades y limitaciones*”. In “*Género, agroecología y soberanía alimentaria; perspectivas ecofeministas*”. Icaria editoriala. Bartzelona.

> **TXOSTENAK, PRENTSA ETA WEBGRAFIA**

- “*Bazterrean elkartuta*”. 2015eko martxoaren 8an, Lorea Agirre, Idurre Eskisabel eta Mari Luz Estebani Maite Asensiok Lozanok eginiko elkarrizketa. Berria egunkarian argitaratua.
- Bernardo Atxagari** eginiko elkarrizketa 2015eko martxoaren 16an. El Correo Español egunkaria. <http://elcorreo.com/bizkaia/culturas/libros/201505/16/hinki-hanka-gabe-esango-20150515184939.html>
- “*Emakume elkarteak eta euskara elkarteak*”. Txerra Rodriguez in Garaigoikoa bloga: <http://blogak.com/garaigoikoa/emakume-elkar-teak-eta-euskara-elkar-teak>
- “*Euskara partekatzen duguna*” dekalogo, Euskaltzaleen Topagunea: <http://topagunea.eus/euskara-partekatzen-duguna/>
- “*Eraldabideak*” txostena, Euskaltzaleen Topagunea: <http://topagunea.eus/doc/federaziotik-mugimendura-eraldabideak/>
- “*Kosmopaletismo politikoa*”. Loiola Aretxabaleta in <http://zuzeu.eus/2015/05/17/kosmopaletismo-politiko/>

Larrun gehigarria, Argia aldizkaria, (2015/04) 197.alea. *“Euskalgintza, berritu ala hil”.*

“Los enemigos para el euskera son el PNV y EH Bildu”. JSE-EGAZ in <http://jse-egaz.org/contenido/509/los-enemigos-para-el-euskera-son-el-pnv-y-eh-bildu/>

“Matxirulorik gabe askoz hobe” albistea, Zizurkilgo Aizan Talde Feministaren festetako kanpainaren baitan: <http://ataria.info/zizurkil/1441360813424>

Medikuntza graduazio ekitaldia (Medikuntzako Asanbladako kideak): <https://youtube.com/watch?v=vgyI2edf9ZU> (53.890 ikustaldi 2015-09-30ean)

“Oinarriparrak” txostena, Euskaltzaleen Topagunea: <http://topagunea.eus/doc/euskaldunon-elkarteak-oinarriparrak/>

Plataforma per la Llengua *“Plataforma per la Llengua i Minoria Absoluta”* bideo laburrak: https://youtube.com/playlist?list=PLlCJqTMq5R8-OTT8_IJ2ISLOzsQLZUaZh

“Punset incendia Les Corts: “El valenciano es entrañable pero poco útil para buscar empleo” in <http://www.publico.es/politica/punset-incendia-les-corts-valenciano.html>

“Put a baten istorioa”. Oihana Etxeberrieta Legrand in: http://www.bilgunefeminista.org/dokumentazioa/ek2_puta_baten_istorioa.pdf

Topaberri aldizkaria. 66. zenbakia (2015eko maiatza); *“Berrikusi eta berrikasi. Euskaltzaleok batzen gaituena garrantzitsuagoa delako”.* Euskaltzaleen Topagunea. <http://topagunea.eus/2015/07/irakurgaia-berrikusi-eta-berrikusi/>

Vincenç Claverie-ri eginiko elkarrizketa in http://www.berria.eus/albisteak/111710/okzitaniera_eremu_handi_batean_hedatua.htm

“Yo quiero una ciudad abierta, cosmopolita y no cada vez más pueblerina”. Ernesto Gasco in <http://www.socialistasdonostiaras.es/fi-chanodo.php?queidioma=1&quetipo=1&quenodo=2493>